



CEIP MIRIBILLA HLHI
C/ VITORIA-GASTEIZ 5
48003-BILBAO-BIZKAIA

Tel. 944166820/fax944162073

015360aa@hezkuntza.net

CEIP MIRIBILLA HLHI

Ikastetxearen Urteko Memoria



2019-2020

Aurkibidea

1. Sarrera	1
2. Helburu orokorren ebaluazioa	4
2.1. <i>IUPean proposatutako helburuen lorpen maila eta garapena</i>	
2.2. <i>1sleriaren ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa</i>	
...	
3. Irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa	
3.1. Ohiko irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa	
3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak	x
3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak	x
3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala	
3.1.4. Irakasleriaren koordinazioa	x
3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programaren ebaluazioa	x
4. Eskolaz kanpoko jardueren planaren ebaluazioa.	x
5. Eskolako zerbitzuen ebaluazioa	x
6. Ekonomi-kudeaketarako planaren ebaluazioa	x
7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko planaren ebaluazioa	x
8. IUPren garapenaren jarraipenaren ebaluazioa.	x
9. Ondorioak eta hobekuntza proposamenak.	x
10. Eranskinak	x

1. Sarrera

2019-20 ikasturtea Covid-19 dela eta, OMS-k munduan pandemia deklaratu zuen. Ikasturtearen martxoaren 13an eskolak ixteko agindua heldu zitzaigun, horrela egin zen. Hurrengo egunean, estatuak konfinamendua dekretatu zuen, eta handik aurrera aurrez aurreko eskolak moztuta gelditu ziren ikasturtea bukatu arte.

Irakas-ikas prozesua beste era batean antolatu zuen Miribillako klaustroak.

Familiekin kontaktuan jarrita, lana banandu zen, 15 egunerako LHn. HHn, blogaren bidez ekintza ezberdinak publikatu ziren. Covid-19 dela eta, eta eskolako familien artean kasuak egonda, departamanduak eskola ixtea erabaki zuen.

Handik aurrera eta Aste Santua pasa ondoren, irakasleria bueltatu zen eskolara eta 15ean behin, lana banatzea erabaki zen, baita ikasleekin kontaktuan jartzea bideo-konferentzia plataforma batzuekin. Halan egin zen, emaitza ezberdinak egon ziren; ordenagailuak ez zeudelako, wifia ez ezgoelako...inplikazio eskasa...

Urteko Planean proposatutako bost helburuak landu dira, martxoaren 13 arte Miribillan finkatutako **METODOLOGIA**tik jarraitu dugu;

Data horretatik aurrera beste metodología bat jarraitu da:

IKASLEEKIN

- **HHn** eskolako **BLOGAREN BIDEZ** landu dira edukiak. Egutegi bat sortu zuten irakasleek egun bakoitzean irakasle batek edukin bat sartzeko eta era motibagarria landu ahal izateko ikasleek etxetik. Astean behin ere ikasleekin harremanetan jartzen ziren, bai telefonoz, bai bideodeiaren bidez.
- **LHn** osoan edukiak lantzeko **PAPER**Ez egindako txostenak banatu ziren helburu bakar bategatik: danokin berdin jokatzea, inklusibitatea eta ekitatea bermatzeko. Baliabide digitala etxe askotan ez baitzen posible. Beraz, bi astean behin eta zikloka antolatuta, familiekin egin beharreko lana hartzen zuten eskolan, handik hamabostera, lana eginda ekartzen zuten, hurrengo eramaneraz. Ekarrirako lana astebetez eskolan geratzen zen inork ikutu barik (cuarentenan), gero, irakasle bakoitzak eramaten zituen bereak zuzentzeko eta zuzenduta bueltan emateko ikasleei, hauek ikusi ahal izateko zuzenketak eta ondo egina zeudena. Horrela, bermatzen saiatzen da ikas-irakas prozesua aurrera eramatea. Honetaz gain, astean behin ziklo bakoitzak erabaki zuen zelan jarri harremanetan ikasleekin: telefonoz, bideo-deiak,... ziklo oso batek bardin jokatuz. Irakasleek bitartearazo-egoeran oinarritutakoa.

IRAKASLEAK

- Konfinamenduan irakasle guztiek **DRIVE**n bitartez konpartitu egin zituzten haien programazioak, sortutako sekuentzia didaktikoak, arazo-egoerak...
- Bideo-konferentzia bitartez ziklo bilerak egin zituzten, hainbat eginkizun zehazteko: lan kopurua, epea, departamentu ezberdineko lanen banaketa...Beti ikasleen onerako.
- Urteko programazioetan zehaztu dira bete barik dauden helburu zein edukiak, datorren ikasturteko lehenbiziko hilabeteetan landu ahal izateko.

ZUZENDARITZA

- Familiekin harremanetan egon da. **COVID-19** gaixotasunak familiengan izan duen eraginagatik, eskola itxi egin zuten.
- Zuzendaritza familiekin kontaktuan egon zen haien eboluzioa jakiteko.
- Ikuskariarekin bideo deien bitartez koordinazioa estuan egon da.
- Ziklo bakoitzarekin bideo deien bitartez batzartu da.
- Pedagogika batzarrak astean behin bete egin dira, era telematikoan.
- Beste eskoletako zuzendaritzakoekin harremana estua izan da.
- Aste Santu ondoren, zuzendaritza taldea egunero egon da eskolan.

Covid-19 aurreko sasoiari aurreko ikasturteetan bezala egin zen antolaketa. Hau da, Pedagogia Batzordetik bideratu zen. Hortik aurrera, **ELKARLANA** izan da nagusia, eta Pedagogia Batzordetik ez ezean, zikloka, zikloartean, departamentuka, eta zuzendaritza taldea ziklo bakoitzarekin ere koordinatu da egoera berri honi aurre egiteko.

Miribilla eskola **11 ESKU PROGRAMAN** bigarren faseko 3. ikasturtean dago.

↳ **Hezkuntza-komunitatearen ekarpenak**

KLAUSTROA

- Zikloetako zein norbanakoaren ekarpenak baloratu, aztertu, amankomunean eztabaidatu eta erabakiak hartu.
- Formazioa jaso eta era koordinatuan martxan jarri.
- IUPa eta MEMORIAraren onarpena.
- Hainbat dokumentu bete jakinarazi eta onartu: irakurketa plana, programazioak, BIZIKASI, IHP, AJA, ELKARBIZITZA...

PEDAGOGIA BATZORDEA

- Astero biltzen da ziklo bakoitzeko koordinatzaileak, zuzendaritza taldearekin eta eskolako aholkulariarekin. Bi helbururekin:
 - Zuzendaritzatik zikloetara informazioa eta egin beharrak helaraztea.
 - Zikloetatik pedagogia batzordera ekarpenak luzatu aztertzeko eta erantzuteko.

ZIKLO BILERAK

- Astero biltzen da pedagogika saiotik datorren informazioa helarazteko eta egunerokotasuna bideratzeko, era koordinatuan.

GURASO ELKARTEA

- Hiruhilean behin biltzen da zuzendaritza taldearekin ikasturteko informazioa trukatzeko.
- Beharrezkoa izan denean batu egin gara.
- COVID-19 dela eta, lehenengo momentutik emailaz edo/eta whatsappen bitartez komunikatu egin dugu.
- COVID-19 dela eta, haien zalantzen aurrean erantzuna ematen saiatu gara zuzendaritzatik, beti dagokigun ikuskariarekin koordinatuta.

ZUZENDARITZA TALDEA

- Eskolako egunerokotasuna bideratu, eskola komunitate osoarekin koordinatuz.
- Lan pedagogikoa lideratu ikuskaritza, Berritzegune eta Hezkuntza Sailarekin harremanetan.

↳ **Datorren ikasturtean jarraipena izango duten urteko planaren aspektuak**

- 1- HIZKUNTZA KONPETENTZIA** indartu eta buktzatu, irakurketa-idazkera zein ulermena-idazmena landuz, komunikazioa bermatzeko.
- 2- Egunerokotasunerako MATEMATIKA-KONPETENTZIA** garatu, matematikako arrazonamendua lantzeko, dagozkion matematikako erremintak, edukiak, eta prozedurak erabiliz.
- 3- IKT**etako ezagupenak ikasleengana hurbildu teknologia berriak erabiliz ikasteko motibazioa sortzeko.
- 4- ESKOLA-FAMILIEN ARTEKO HARREMANAK** sendotu, guraso elkarteak, O.G.G, eta eskola komunitate osoaren bitartez, lankidetzak eta komunikazioa indartzeko eta horrela, ikasleriaren garapen kognitiboa bermatzea.
- 5- Ikasleei BANAKAKO ARRETA** eta ANIZTASUNARI erantzuna ematea; talde-kohesioa indartuz, haien arteko komunikazioa, elkar-konfidantza eta talde-lana bermatzeko.

2- Helburu orokorren ebaluazioa

2.1 - Talde bakoitzaren IUPren lan plangintzaren balorapena, ezarritako lorpen adierazleak kontuan harturik.

Talde edo estruktura: **HAUR HEZKUNTZA**

1-HIZKUNTZA KONPETENTZIA

1.1-IRAKURKETA ETA IDAZKETA

-“Comunicarnos” dokumentuan oinarriturik, ikasturte hasieran, tutoreek programa osoa irakurri ondoren eta bertan adierazitakoarekin zalantzak komunean jarri eta gero, akordio batzuetara heldu ginen. Mailaka, bertako material interaktiboa jeitsi genuen, “Siembra estrellas” web orrialdetik hain zuzen.

-2019-2020 ikasturte honetatik hasita, aurrera eramaten hasi garen akordioak, hurrengo hauek izan dira:
-Praxiak lantzen aritu gara etapa osoan zehar, baina 2eta 3 urteko geletan batik bat.

3 urteko geletan kinestemak erabili ditugu eta hurrengo hau landu da:

- Entzutezko oroimena
- kontzientzia Lexikoa

4 urteko gelan, kinestemak eta artikulemak. Hurrengo hau landu da:

- Entzutezko oroimena
- kontzientzia Lexikoa
- kontzientzia silabikoa

5 urteko gelan, kinestemak, artikulemak eta alfabetoa eta hurrengo hau:

- Entzutezko oroimena
- kontzientzia Lexikoa
- Kontzientzia silabikoa
- Kontzientzia fonemikoa
- Oinarri alfabetikoa.

-Eremu honi eta jarraian aipatuko ditugun hurrengoei begira, COVIT 19 egoeragatik eragin duak izan direla kontutan hartu dugu eta hurrengo ikasturteko programaketei begira, dagozkion egokitzapenak egin beharko ditugu (hainbat arlotako garapenean, hutsuneak egon direlako).

-Hurrengo urteari begira, adostasun hauek guztiak, txosten idatzi batean islatu behar ditugula proposatu da. Honetarako, saio batzuk erabili behar izango ditugularik.

1.2-IPUINLANDIA

-Ikasturte hasieran zehaztutako planifikazioa jarraitu egin dugu hilabete bakoitzean zehar, zehaztutako ipuinak eta metodologia aurrera eramanez.

-Aurten, datak hasieratik zehaztu izanak, egutegia betetzea erraztu digu.
-Oso ekintza baliogarria ikusten dugu irakurketa zaletasuna bermatzeko.

1.3-GELAKO LIBURUTEGIA

-Mota desberdinetako testu formatuak erabili egin dira gelako liburutegia osatzeko; ipuinak, liburuak, aldizkaria eta abar... Eskolako liburutegitik hartutako liburuak zein etxetik ekarritakoekin eratu da, baita irakasleok sortutako liburuxka ezberdinekin ere .

-Liburuak urtero berriztea proposatzen dugu eta honetarako, diru kopuru bat izatea onuragarria litzatekela ikusten dugu.

1.4-ESKOLAKO LIBURUTEGIA

-Eskolako liburutegiaren erabilpena, mailaren araberakoa izan da.

-Gure ordutegian, liburutegia noiz erabili mailaka finkatuta izateak, errutina markatzerako orduan oso lagungarria izan zaigu.

-Hilero, 4 eta 5 urteko geletara ipuin kontalaria etorri egin da eta oso ekintza aproposa deritzogu. Hurrengo

urteari begira, ipuin kontalariaren ordutegia aurretik adostea hobeto litzatekeela ikusten dugu.

2-MATEMATIKA KONPETENTZIA

-Metodologia aldetik, ez dugu berrikuntzarik egin baina ildo beretik jarraitu dugu.
-Hurrengo blokeak landu izan dira era globalizatuan eta ikasturtean zehar. Dagokion mailaren eskakizunaren arabera eraman dira aurrera, beti ere, COVID 19aren etenak ekarri dituzten kontutan izanda.

- 1) Pentsamendu logiko-matematikoa.
- 2) Zenbakikuntza eta kalkulua
- 3) Geometria
- 4) Neurriak
- 5) Estatistika

-ABN metodologiaren inguruan, formakuntza jaso genuen, baina ez dugu proposa ikusi. HH eta LH arteko zubia egiteko orduan, ez zaigu baliagarria iruditu eta guk daukagun metodologia planteamenduarekin, ez dugu bateratasun bat egiteko aukerarik ikusi. Metodoa bera bere osotasunean, ez zaigu argi geratu.

3-IKT EZAGUPENAK

3.1 ARBELA DIGITALA ETA IKT BALIABIDE EZBERDINAK

-2 urteko geletan, 3 urteko geletan eta musikako gelan tabletak instalatu zituzten urrian.
-Tableta hauek, erabilgarriak izan dira baina eragozpenak handiak eduki ditugu ere, Wi-Fiak ez zuelako funtzionatzen eta ez digutelako ondo azaldu nola erabili. Tabletetan programak instalatzerako orduan, arazoak izan ditugu eta ezin izan ditugu erabili kableak falta zirelako.
-4 eta 5 urteko geletan, errutinak egiteko arbela digitala erabili izan da eta baita programa ezberdinak ere.
-Ziklo mailan erabili izan diren programak, Urtxintxako Tanttto, Txirritx, Xango...eta abar... izan dira beste batzuen artean.
-Esan dezakegu COVID 19a dela eta konfinamendua iraun duen bitartean, gure kabuz hainbat aurrerapen egin ahal izan ditugula ikt mailan, esaterako; eskolako blogaren antolamendua, bideoen egituraketa, programa ezberdinen erabilpena, bideo deiak...eta abar.
-Hurrengo ikasturteari begira, ikasturte hasieran, ordenagailuetan egon daitezkeen arazo teknikoak komunikatu eta zehaztu behar ditugu.
- Hurrengo urteari begira, gure artean IKT formakuntza egitea oso onuragarri ikusten dugu. Saiok izatea gomenigarria deritzogu gure artean informazioa luzatzeko astia izateko. Gehienetan, beste formakuntza batzuk baino baliagarriagoa izango litzatekeela uste dugu.

3.2 TXIKILINUX PROGRAMA

-5 urteko gelan egin da. Ondo baloratzen dugu programa, baina irakasleek denbora beharko lukete aplikazioak erabiltzen ikasteko.

4-ESKOLA FAMILIARTEKO HARREMANAK

4.1 - PARTE HARTZEA ETA LANKIDETZA

-Ikasturtean zehar egindako ekintza guztietan egon da gurasoen parte hartzea:
Olentzero egunean, irteeretan, inauteriak, eta mozorroen prestakuntzan. Azken ekintza honetan, orokorrean esan dezakegu, familia gutxi etorri direla laguntza ematera.
-Gurasoak, makinisten lana ikustera etortzen hasi dira bigarren hiru hilabetez aurrera, baina ezin izan da bukatu pandemia dela eta.
-Jarraituko da gurasoei haien parte hartzea eskatzen eta honek duen garrantzia familiei helarazten.

4.2 IKASTURTE HASIERAKO BATZARRAK FAMILIEKIN

- Aktetan ikus daitezkeen bezala, mailaren arabera, familien parte hartzea ezberdina izan da.
-Onuragarri ikusten dugu familiei helbide elektronikoak eskatzea hasierako batzarretan eta baita gureak ematea ere.
-Familia berriei harrera egiteko orduan, gure artean ordezkapenak egitearen behar izana ikusten dugu.

4.3 ABSENTISMOA MURRIZTEA

-Hiru egunetan zehar faltatzen direnean, etxera deitu izan da eta informazioa idatziz jaso da. Oso egokitzat jotzen dugu kurtso hasieratik aurreko hau sistematizatuta egotea. Faltak hilabetero apuntatu egin dira erregistroen bidez.

5-BANAKAKO ARRETA ETA ANIZTASUNARI ERANTZUNA

5.1 ADIMEN EMOZIONALA

-Lehenengo bi hiru hilabeteetan zehar, programaturik genituen blokeak aurrera eraman dira. Maila bakoitzak, konfinamenduan zehar, egiteko geratu den azken blokea programatuta utzi du hurrengo urteari begira.

-Mailaka landu diren blokeak, hurrengo hauek izan dira:

1. KONTZIENTZIA EMOZIONALA lehenengo hiru hilabeteetan zehar.
2. TREBETASUN SOZIOEMOZIONALAK bigarren hiru hilabeteetan zehar.

-Maila bakoitzak, aurretiaz zikloan adostu genituen programaketak burutu izan ditu eta aurrera eraman dira emaitza positiboa izan delarik. Zikloan dagokion ebaluaketa orokorra egin izan dugu eta baita umeko, erregistro orrien bidez.

-Egiteko geratu zaigun azken blokea, GATAZKEN EBAZPEN Baketsuari dagokio ; hau da, ADOSTOKIA. Hurrengo urteari begira, ados tokiak gelatik kanpo ezartzea geratu zaigu .

-Aurten, goian aipatutako arlo guztiei begira, COVIT 19 aren egoerak sortarazitako atzerapenak eta hurrengo ikasturteari begira egiteko geratu diren atalak, mailako memorietan islatuta geratu dira.

Talde edo estruktura: **1. ZIKLOA**

HIZKUNTZA KONPETENTZIA

1.1 IRAKURKETA:

- Irakurketa librerako ikasgelako liburutegia.
- Taldeko irakurketa, astean behin eta ordutegian zehaztuta. 2. mailan irakurketa babesa.
- Banakako irakurketa plana.
 - Ekintza guzti hauek 1. Eta 2. Hiruhilabeteetan landu dira. Onak izan dira emaitzak
 - Banakako irakurketa planean 2. Mailako ikasle guztiek hartu dute parte . Ekintza motibagarria izan da. Datorren ikasturtean jarraitzea proposatzen da, lehenengo zikloko maila guztietan.
 - Eskolako liburutegia ez da era egokian erabili ikasturte hasieran programatu zen bezala. Eskolan arazoak egon dira (uholdeak) eta liburutegia gela ordinaria bihurtu zen. Liburutegian astean behin lan egitea proposatzen da.

1.2 IDAZMENA:

- Idatzizko produkzioak
- Diktaketak
 - Idatzizko produkzioak landu dira baliabide ezberdinen bidez (muralak, eguneroko errutinak...)
 - Diktaketak sistematikoki egiten dira.

1.3 AHOZKO ADIERAZPENA

- Ahozko produkzioak
 - Eguneroko errutinetan eta jokuen bidez ahozko adierazpena eta ulermena landu da.
 - Ikasleak produkzioak egiten saiatu da, horretarako muralak eta bideoak erabili dira. Ordutegian zehaztutako saioa errespetatzea zaila izan da, beraz, hurrengo ikasturtean malera malguagoaz landuko da.

MATEMATIKA HIZKUNTETAN INTEGRATZEA

- 2.1 ARAZO-EGOERA
 - Hiru arazo-egoera prestatu dira, baina hirugarren hiruhilabeteari dagokiona ezin izan da bete COVID-19 dela eta. Datorren ikasturtean arazo-egoera desberdinak prestatzea eta egitea proposatzen da geletan egiteko.
 - Matematikako hizkuntza konpetentzia ABN metodologiaren bitartez landu egin da.

Talde edo estruktura: **2. ZIKLOA**

HIZKUNTZA KONPETENTZIA

Arlo hau idartzeko honako esparru hauek landu dira:

- o *IRAKURKETA*
 - o Gelako liburutegia era librean irakurtzeko.
 - o Irakurketa taldean astean behin era gidatuan.
 - o Banakako irakurketa-plana (Boluntarioa- literatur-solasaldia).
 - o Eskolako liburutegia.
- Ekintza guzti hauek ikaslurteko 1. eta 2. hiruhilekoan landu ziren. **Datorren ikasturterako berdin jarraitzea proposatzen da.**

Alarma sasoiari liburutegiko materiala banandu da ere, etxean jarraitu ahal izateko.

- **Banakako irakurketa planean** LH osoak hartu du parte 3.D izan ezik. **Datorren ikasturtean TALDE GUZTIEKIN berdin jarraitzea proposatzen da.**
 - Ikasturte honetan gertaera batzuk direla eta (uholdeak), ezin izan da kiburutegia pentsatu bezala erabili. Datorren ikasturtean proposatzen da **ASTEAN BEHIN** programatutako ekintzak egitea bai tutorearekin baita dagokion espezifikoarekin.
- 2020-21 ikasturtean proposatzen da ASTEAN SAIO BATEAN euskeraz lantzea eta hurrengoan erderaz.** Saio horrek gelako ordutegian zehaztuko dira.

IDATZIZKO KONPETENTZIA

- 1- Idatzizko produkzioak
- 2- Diktaketak

Ekintzak era sistematikoan egiten dira, beraz **datorren ikasturtean (2020-21) berdin jarraitzea proposatzen dugu.**

AHOZKO HIZKUNTZA

- 1- Ahozko produkzioak

NATUR ZIENTZIAN eta GIZARTE ZIENTZIAN ikasleek mapa mentalen bidez eta eskemaz lagunduta ahoz azaltzen dute gai bakoitza. **Holan jarraitzea proposatzen da.**

Oso zaila izan da ordutegian zehaztuta zegoen saioa betetzea. Beraz datorren ikasturtean malgutasunez jokatu da ikasleak gaia prest daukanean irakasleak lagunduta.

MATEMATIKA HIZKUNTZETAN

- 1- Arazo-egoera

Hiru arazo-egoera garatu dira ikasturtean zehar, vaina 3. Hiruhilabetekoa ez da burutu gelan COVID-19 dela eta.

2020-21 ikasturtean arazo-egoerak sortzen jarraitzea proposatzen da gelan posiblea den neurrian.

MATEMATIKA KONPETENTZIA

Matematika egunerokotasuean landu da honen bidez:

- 1- Talde txikiak (LH-4. Mailan bakarrik).
- 2- Buruketak ebazteko estrategiak
- 3- Matematika arlo guztietan

- TALDE TXIKIETAN lan eginez ikaleen lana askoz eraginkorragoa taldekatze honek euren artean laguntzea errezten du. **Datorren ikasturtean hórrela lan egitea proposatzen da COVID-19 EGOERAK ONARTZEN BADU.**
- GRAFIKOAK gai bkoitzarekin lotuta egin dira, bai gizarte zientzieta, natur zientzietan eta matematikan. **Datorren ikasturtean berdin jokatzea proposatzen da.**
- **MATEMATIKA- Jolas batzuk beharrezkoak dira zikloan. Astean behin saio bat zehaztea proposatzen da.** Horrek edukinen ulermena eta batez ere pentsamendu logikoa. (LH 3. Dk Aurrera eramán du ikasturte honetan).
- **Matematika arlo guztietan integratua izan da.**

IKT EZAGUTZAK

- 1- Arbela digitala
- 2- IKT eskolan
- 3- Teknologia erabilpen egokia garatu

Arbela digitalaren erabilpena ziklo honetan arlo guztietako edukiak indartzeko bakarrik erabili izan da. **Datorren ikasturterako 2020-21 proposatzen da formazio teknologikoa jasotzea arbela digitalaren inguruan.** Horrela, tresnen erabilera handiagoa izan leike egunerokotasunean eta ikaslearen garrantzian.

Era berean datorren ikasturtean astean behin edo gehiagotan informatika gelara joatea proposatu da, eta maila gutxi-gutxika igotea.

FAMILIA-ESKOLA HARREMANA

Era koordinatuan lan egiteko azpimarratzen da:

- 1- Paraidetza
 - 2- Ikasturte hasierako bilera
 - 3- Beste familiak animatu hainbat ekintzetan parte hartzeko.
- GURASO ELKARTEAK hainbat ekintzetan parte hartu izan du: rifak, Olentzero egunean,... **Datorren ikasturtean berdin jarraituko da.**
 - Ikasturte hasieran guraso-bilerak antolatu ziren mailaz maila eskolako arauak, dinamikak, ekintza bereziak... azaltzeko asmoz.. Horietan oso familia gutxi parte hartu zuten. Dena den, beharrezkoa izan denean familiei deitu zaie informazio eza egon ez dadin.
COVID-19 egoera dela eta, bigarren ebaluazioaren bilerak ez ziren burutu, baina bai jarri ziren harremanetan tutoreak familia bakoitzarekin informazioa emanez.
Hurrengo hilabeteetan, harremana jarraia izan da; bai informazioa emateko, zalantzak argitzeko edota arlo emozionala zaintzako ere.
Hirugarren ebaluazioan bai egin dira elkarrizketak familia guztiekin ikasturte amaierako notak banatzeko, dagokion informazioa emateko eta udarako lana banatzeko.
 - Ikasturte honetan GOSARIAK antolatu ziren familiekin eta ere hasi zen GURASO ESKOLA. Ezin izan zen burutu COVID-19 dela eta.

Datorren ikasturtean ekintza hauek burutzea proposatzen da.

NORBANAKO ARRETA ETA ANIZTASUNA

- 1- TUTORETZAK
- 2- HUTS EGITEA MURRIZTEA

- 1. eta 2. Hiruhilekoetan BIZIKASI inguruko formazio saioak antolatu dira zikloan. Oso ondo baloratu da. Edukiak berriak eta motibatzaileak izan dira ikasleentzako: cyberbullyng, ingurunea... Oso informazio hurbila izan da, eta errealitatearekin lotuta.

Datorren ikasturtean BIZIKASI programa berreskuratuko da eta astean bi saioetan lantzea proposatzen da.

- Ikasturtean zehar huts egite datuak hartu dira, baloratu eta ikuskaritzarekin partekatu dira hilero.. Beharrezkoa izan denean familiekin harremanetan jarri dira tutorreak eta zuzendaritza taldea.

Datorren ikasturterako ere gain gainean egotea proposatzen da.

Talde edo estruktura: 3. ZIKLOA

HIZKUNTZA KONPETENTZIA

1.1 IRAKURKETA:

- Gelako liburutegia
- Taldeko irakurketa astean behin
- Irakurketa-babesa
- Eskolako liburutegia
- Idazleekin solasaldiak
 - Lehenengo eta 2. ekintzak era sistematikoan landu dira. Emaitzak positibak izanda hurrengo ikasturterako proposatzen dira.
 - **Irakurketa-babesan** ikasle guztiek ez dute parte hartu. Ekintza ez motibagarria bada ikasleentzat; beraz, emaitzak ez dira onak izan. Hurrengo ikasturtean ekintza hau ez betetzea proposatzen da eta haren truke gelan bertan mailari dagozkion liburuak irakurtzea.
 - Eskolako liburutegia ez da era egokian erabili. Hurrengo ikasturtean astean behin joatea tutore edo dagokien espezifikoarekin eta prestatutako ekintzekin proposatzen da. Astean behin saio bat hizkuntza eta beste saio bat gaztelania lantzea proposatzen da.
 - Idazleekin solasaldiak ez dira posiblea izan COVID-19 dela eta. Ekintza hau beste ikasturteetan positiba izan da; beraz datorren ikasturtean planifikatzea ere komenigarria ikusten da.

1.2 IDAZMENA

- Idazlanak
- Diktaketak
- Talde txikiak
 - Hiru ekintza hauek era sistematikoan lantzen dira, beraz hurrengo ikasturtean ere jarraitzeko proposatzen da.

1.3 AHOZKO HIZKUNTZA

- Ahozko produkzioak
 - **Ikasleek ahozko produkzioak egiten dituzte zientzietako gaiekin lotuta, horretarako eskemak eta mapa mentalak erabiltzen dituzte.** Zaila izan da ordutegian markatutako saioa errespetatzea. Hurrengo ikasturtean malgutasunez landuko da eta beti ikasleak prestatuta duenean eta irakaslearen gidarekin.

1.4 HIZKUNTZETAN MATEMATIKA

- Arazo-egoera
 - Hiru arazo-egoera prestatu dira, baina hirugarren hiruhilabeteari dagokiona ezin izan da bete COVID-19 dela eta. Datorren ikasturtean arazo-egoera desberdinak prestatzea eta egitea proposatzen da geletan egiteko

MATEMATIKA KONPETENTZIA

Egunerokotasunari begira garatu da matematika:

- Talde txikiak
- Buruketak ebazteko estrategiak
- Arlo guztietan matematika sartzea
 - Talde txikietan lan egitea oso produktiboa da ikasleentzat elkarlana eta benetako lanaren denbora ere indartzen dituelako, eta era berdinean hartzen dute parte. Jarraitzea proposatzen da.
 - Grafikoak irakurtzea eta egitea zientziekin eta matematikarekin lotuta egin dira. Emaitza positiboa izan da.
 - Zikloan joku matematiko ezberdinak izatea proposatzen da, baita saio bat zehaztea ordutegian. Pentsamendu logikoaren garapena indartzen dute.
 - Matematika integratu da arlo guztietako programazioetan.

IKT

- Arbela digitala.
- Eskolako esparruetan IKT dinamikak hurbiltzea.
- Teknologia era egokian erabiltzen ikasi.
 - Arbela digitalaren erabilpena arloetan lantzen diren edukien laguntza da, besterik ez. Beraz, proposatzen da arbela digitalari buruzko formazio didaktiko-teknologikoa jasotzea; horrela, gure dozentzia paktiketarako baliabideak indartuko dira; halaber, ikasleek era aktiboagoan parte hartuko dira.
 - Eskola 2.0ko eramangarriak lan ezberdinak betetzeko erabili arren, haien egoera txarra askotan, bada eragozpena saioa aurrera eramateko eta ondorioz, praktika konbentzionalak eta ez hain motibagarriak betetzera behartzen gaitu..Eramangarri berriak ematea ikasleriari proposatzen da.
 - Astean behin ordutegian informatika saio bat zehaztea proposatzen da eta saio horretan informatika gelara joatea, hantxe, testu prozesadoreak, gmail, drive erabiltzen irakastea; gero, aplikatu ahal izateko etxetik beharrezkoa balitz.

FAMILIA-ESKOLA HARREMANA

- Elkarlana eta parte hartzea
- Ikasturte hasierako batzarra
- Ekintza desberdinetan parte hartzeko animatu
 - Eskolak edo familiek antolatutako ekintza ezberdinetan parte hartu da: irteerak, jaia, zozketa, Olentzero...
 - Urriaren hasieran, ikasturte hasierako batzarra antolatu zen, familia gutxik hartu zuen parte. Beharrezkoa izan denean familiekin hitzegin da. Bigarren ebaluazioko batzarra ezinezkoa izan zen COVID-19 dela eta. Hilabete hauetan Osasun alarma bitartean, telefonoren bidez kontaktuan jarri gara azaltzeko seme-alabek egin behar zuten lana, baita sortzen ziren zalantzak argitzeko ere. Hirugarren hiruhilean gurasoekin elkarrizketak egin dira azken boletinak emateko eta udarako lana eman eta azaltzeko.
 - Familiekin gosariak antolatu ziren eta guraso eskola jarri zen martxan, Gizarte-zerbitzuko bitartekariak antolatuta. COVID-19 dela eta, ezin izan zen jarraitu.

5 ANIZTASUNA ETA BANAKAKO ARRETA

- Tutoretzak
- Absentismoaren murrizketa
 - BIZIKASI, tutoretza planean oinarrituta, lehenbiziko bi hiruhilabeteetan programatutakoa landu da. Emaidza positiboa izan da, proposatutako edukiak motibagarriak zirelako eta berriak ikasleriarentzat: cyberbullying, ingurumena...
 - Asistencia faltak egunero erregiztratu dira. Kasu batzuetan tutorea edo zeuzendaritza taldea kontaktuan jarri gara gurasoekin beharrezkoa ikusi bada. Eguneroko jarraipenarekin jarraituko dugu.

2.2 Ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa

HAUR HEZKUNTZA- METODOLOGIA

HIZKUNTZA KONPETENTZIA

-“**Comunicarnos**” dokumentuan oinarriturik, ikasturte hasieran, tutoreek programa osoa irakurri ondoren eta bertan adierazitakoarekin zalantzak komunean jarri eta gero, akordio batzuetara heldu ginen. Mailaka, bertako material interaktiboa jeitsi genuen, “Siembra estrellas” web orrialdetik hain zuzen.

-2019-2020 ikasturte honetatik hasita, aurrera eramaten hasi garen akordioak, hurrengo hauek izan dira:

-Praxiak lantzen aritu gara etapa osoan zehar, baina 2eta 3 urteko geletan batik bat.

3 urteko geletan kinestemak erabili ditugu eta hurrengo hau landu da:

- Entzutezko oroimena

-kontzientzia Lexikoa

4 urteko gelan, kinestemak eta artikulemak. Hurrengo hau landu da:

- Entzutezko oroimena
- kontzientzia Lexikoa
- kontzientzia silabikoa

5 urteko gelan, kinestemak, artikulemak eta alfabetoa eta hurrengo hau:

- Entzutezko oroimena
- kontzientzia Lexikoa
- Kontzientzia silabikoa
- Kontzientzia fonemikoa
- Oinarri alfabetikoa.

-Eremu honi eta jarraian aipatuko ditugun hurrengoegi begira, COVID 19 egoeragatik eragin duak izan direla kontutan hartu dugu eta hurrengo ikasturteko programaketei begira, dagozkion egokitzapenak egin beharko ditugu (hainbat arlotako garapenean, hutsuneak egon direlako).

-Hurrengo urteari begira, adostasun hauek guztiak, txosten idatzi batean islatu behar ditugula proposatu da. Honetarako, saio batzuk erabili behar izango ditugularik.

-IPUINLANDIA

-Ikasturte hasieran zehaztutako planifikazioa jarraitu egin dugu hilabete bakoitzean zehar, zehaztutako ipuinak eta metodologia aurrera eramanez.

-Aurten, datak hasieratik zehaztu izanak, egutegia betetzea erraztu digu.

-Oso ekintza baliagarria ikusten dugu irakurketa zaletasuna bermatzeko.

GELAKO LIBURUTEGIA

-Mota desberdinetako testu formatuak erabili egin dira gelako liburutegia osatzeko; ipuinak, liburuak, aldizkaria eta abar... Eskolako liburutegitik hartutako liburuak zein etxetik ekarritakoekin eratu da, baita irakasleok sortutako liburuxka ezberdinekin ere .

-Liburuak urtero berriztea proposatzen dugu eta honetarako, diru kopuru bat izatea onuragarria litzatekela ikusten dugu.

ESKOLAKO LIBURUTEGIA

-Eskolako liburutegiaren erabilpena, mailaren arabera izan da.

-Gure ordutegian, liburutegia noiz erabili mailaka finkatuta izateak, errutina markatzerako orduan oso lagungarria izan zaigu.

-Hilero, 4 eta 5 urteko geletara ipuin kontalaria etorri egin da eta oso ekintza aproposa deritzogu. Hurrengo urteari begira, ipuin kontalariaren ordutegia aurretik adostea hobeago litzatekeela ikusten dugu.

MATEMATIKA KONPETENTZIA

-Metodologia aldetik, ez dugu berrikuntzarik egin baina ildo beretik jarraitu dugu.

-Hurrengo blokeak landu izan dira era globalizatuan eta ikasturtean zehar. Dagokion mailaren eskakizunaren arabera eraman dira aurrera, beti ere, COVID 19 aren etenak ekarri digunak kontutan izanda .

- 6) Pentsamendu logiko-matematikoa.
- 7) Zenbakikuntza eta kalkulua
- 8) Geometria
- 9) Neurriak
- 10) Estatistika

-ABN metodologiaren inguruan, formakuntza jaso genuen, baina ez dugu aproposa ikusi. HH eta LH arteko zubia egiterako orduan, ez zaigu baliagarria iruditu eta guk daukagun metodologia planteamendurekin, ez dugu bateratasun bat egiteko aukerarik ikusi. Metodoa bera bere osotasunean, ez zaigu argi geratu.

IKT EZAGUPENAK

ARBELA DIGITALA ETA IKT BALIABIDE EZBERDINAK

-2 urteko geletan , 3 urteko geletan eta musikako gelan tabletak instalatu zituzten urrian.

-Tableta hauek, erabilgarriak izan dira baina eragozpenak handiak eduki ditugu ere, Wi-Fiak ez zuelako funtzionatzen eta ez digutelako ondo azaldu nola erabili. Tabletetan programak instalatzerako orduan, arazoak izan ditugu eta ezin izan ditugu erabil kableak falta zirelako.

-4 eta 5 urteko geletan, errutinak egiteko arbela digitala erabili izan da eta baita programa ezberdinak ere.

-Ziklo mailan erabili izan diren programak, Urtxintxako Tantto, Txirritx, Xango...eta abar... izan dira beste batzuen artean.

-Esan dezakegu COVIT 19a dela eta konfinamendua iraun duen bitartean, gure kabuz hainbat aurrerapen egin ahal izan ditugula ikt mailan, esaterako; eskolako blogaren antolamendua, bideoen egituraketa, programa ezberdinen erabilpena, bideo deiak...eta abar.

-Hurrengo ikasturteari begira, ikasturte hasieran, ordenagailuetan egon daitezkeen arazo teknikoak komunikatu eta zehaztu behar ditugu.

- Hurrengo urteari begira, gure artean IKT formakuntza egitea oso onuragarri ikusten dugu. Saioak izatea gomenigagarria deritzogu gure artean informazioa luzatzeko astia izateko. Gehienetan, beste formakuntza batzuk baino baliagarriagoa izango litzatekeela uste dugu.

TXIKILINUX PROGRAMA

-5 urteko gelan egin da. Ondo baloratzen dugu programa, baina irakasleek denbora beharko lukete aplikazioak erabiltzen ikasteko.

ESKOLA FAMILIARTEKO HARREMANAK (PARTE HARTZEA ETA LANKIDETZA)

-Ikasturtean zehar egindako ekintza guztietan egon da gurasoen parte hartzea:

Olentzero egunean, irteeretan, inauteriak, eta mozorroen prestakuntzan. Azken ekintza honetan, orokorrean esan dezakegu, familia gutxi etorri direla laguntza ematera.

-Gurasoak, makinisten lana ikustera etortzen hasi dira bigarren hiru hilabetetik aurrera, baina ezin izan da bukatu pandemia dela eta.

-Jarraituko da gurasoei haien parte hartzea eskatzen eta honek duen garrantzia familiei helarazten.

LH- METODOLOGIA

ARAZO EGOERAN OINARRITUTAKO IKASKETA

Egun curriculumean oinarritzko konpetentziak garatzeko printzipio metodologikoak zehazten dira. Edukiek eguneroko bizitzarekin lotura izan behar dute eta horien lanketa egoera errealean izan behar dute abiapuntua. Irakaslea izango da ikasketa-egoerak edota –eszenatokiak diseinatu eta antolatzearen arduraduna baina, horien ebazpenean ikas-komunitate osoaren inplikazio aktiboa ezinbestekoa da. Horregatik, arazo-egoerak metodologia ikasleen oinarritzko konpetentziak bermatzeko estrategia ezin hobea da.

Arazo-egoeretan euren errealitatearekin lotura estua duen testuinguru eta arazoa aurkezten zaie ikasleei. Horri irtenbidea emateko (azken emaitza lortzeko) ikasleek jarduera anitzak eraman behar dituzte aurrea. Aurrerapauso bakoitzari esker ikasleek zeharka diziplina baitako zenbait konpetentzia landu dezakete eta, era berean, gaitasun digitala ere txertatzen da (informazioa bilatu, edukiak digitalki sortu, azken emaitza produkzio digital modura jaso...).

PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA (POI)

Errealitatean oinarritutako ikaskuntza eredua bat da, zeinetan ikasleek planifikatu, garatu eta ebaluatzen dituzten bizitzarekin zerikusia duten proiektuak. Teoria honen arabera, ikaslea bera da bere ikaskuntza-prozesua eraikitzen duena, aurreko jakintza eta trebezietan oinarrituta, elementu berriak eskema orokorragoetan txertatuz.

- Pentsamendu kritikoa
- Komunikazioa
- Lankidetzeta

EZAUGARRIAK

- Ikaslea da ikaskuntza prozesuaren protagonista (hainbat proiekturen artean hautatuko du).
- Taldetan lan egiten da.
- Ikasleentzat esanguratsua izango da.
- Helburu hezitzailea izango du.
 1. Ikaslearen jakin-mina pizten du.
 2. Ikasleari ahotsa eta hautatzeko aukera ematen dio.
 3. XXI. mendeko gaitasunak garatzen ditu.
 4. Berrikuntza eta ikerketa sustatzen ditu.
 5. Feedback eta berrazterketa bultzatzen ditu.
 6. Amaierako produktua gizartearen arazoren bat konpontzea du helburu, eta aske, publiko eta doan eskaintzen da.

ONURAK

Ikasleek ondorengo gaitasun eta trebetasunak garatzen dituzte:

- Lankidetzak,
- Proiektuen plangintza
- Komunikazioa, erabakiak hartzea eta denboraren kudeaketa
- Eskola eta errealitatea uztartzen dira.

AUKERA ESKAINTZEN DA:

- Eskolan edo gizartean ekarpenak egiteko.
- Gizarte eta komunikazio gaitasunak garatzeko.

PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZAREN INPLEMENTAZIOA

1. Egoera edo arazoa: esaldi bat edo bi, gaia edo konpondu nahi den arazoa azalduko duena.
2. Proiektuaren deskribapena eta helburua: proiektuaren helburu nagusiaren azalpen laburra eta zein neurritan erantzuten dion egoera edo arazoari.
3. Jardueraren zehaztapenak: proiektuak bete beharreko kalitate irizpideen zerrenda.
4. Arauak: proiektua garatzeko gida edo argibideak, aurreikusitako denbora eta epe motzerako helburuak barne.
5. Partaideen eta haiei egokitutako eginkizunen zerrenda.
6. Ebaluazioa: nola ebaluatuko da ikasleen jarduna? PBLn, ikaskuntza prozesu osoa eta amaierako produktua ebaluatzen dira.

EBALUAZIOA

1. Eginkizun edo rolen esleipena.
2. Ikerketa lana.
3. Erantzukizunaren banaketa.
4. Dokumentuen azterketa sortzailea.
5. Komunikazioa, gizarte trebetasunak.

Tradizionala:

Idatzizko txostena

Ahozko aurkezpena: mapa mentalen bidez azalpenak eman

Teknologiak erabiliz: argazki edo irudiak, hormairudiak, aurkezpen elektronikoa...

KONTROL ZERRENDA

- ✓ Ezagutza (ikerketa, informazioaren kudeaketa).
- ✓ Komunikazio trebetasuna.
- ✓ Gizarte trebetasuna.
- ✓ Trebetasun teknologikoa.
- ✓ Amaierako produktua.

HIZKUNTZA ETA ZIENTZIAK LANTZEKO METODOLOGIA

Hizkuntza eta **zientziak** era bateratuan lantzen dira arazo egoeratan oinarrituta. Ikasleen interesak kontutan izanik, hizkuntza lanerako eta komunikatorako tresna bat gehiago izan daiteke. Beraz, natura eta gizarteko ezagutzak esanguratasuna ematen dio hizkuntzari (komunikazioa eta kognizioa lotuz).

Hau dela eta, ikasleek bi arloetarako amankomunea den azken proiektu, produkzio... burutu beharko dute.

Ikasleak azken produktua ekoiztu bitartean, hainbat estrategia eta kontzeptu berri ikasiko ditu

(informazioaren trataera, grafikoaren interpretazioa eta diseinua, lexiko berezia...) Aprendizai batzuk zientifikoak izango dira eta beste batzuk hizkuntzari dagozkionak (**testu tipologiari dagozkionak**).

Bi arlo hauen artikulazioa ziurtatzeko arreta handiz aukeratzen da gai bakoitzaren landuko den **testu mota**.

Ikaslea testu-mota desberdinen aurrean sentsibilizatu behar dugu:

- Aniztasun testuala sistematizatu: lpuina, azalpena, iritzia, albistea...

- Maila pedagogiko desberdinak:

- Kontestua: nor, zertarako, noiz, norentzat... idatzi duen

- Aipagaia: Zer esaten da testuan. Gure kasuan natura eta gizartearen ezagutzazko gaia da. Gai hau sistematikoki lantzen da sekuentzian zehar.

- Antolaketa: Nola dago antolatuta, nola hasi eta bukatzen da... Modu ezberdinean egiten da testu mota bakoitzean

- Testuratzeko - maila: Testu antolatzaileak, aditz- denborak...

Proiektu bakoitzak urrats hauek ditu :

- **Azken produkzioa zehaztu** . Ikasleei jakinaraziko zaie hizkuntzarekin egin beharko duten iharduera **.Ikasleek dakitena kanporatu** . Bi arloei buruz dakitena kanporatu. Natura eta gizartearen gaiari eta komunikazio egoerari dagokiona ere.
- **Ereduak aztertu** . Apendizai zientifikoari lotutako iharduerak bai linguistikoari lotutakoak. Ereduak alderdi ezberdinetatik aztertzen dira : gaiari dagokionez (ulermen estategiak, informazioa jaso...), komunikazio egoerari dagokionez (igorlearen eta hartzailearen ezaugarriak), testu antolaketari dagokionez (testuak dituen atalak, zein ordenetan...) eta testuratzeko lanak (antolatzaileak , kohesio estategiak).
- **Testua ekoiztu**. Ikasleek testua ekoiztuko du eruedetan aztertutako alderdiak izanik.
- **Ebaluaketa eta zuzenketa** . Ikasleak beste ikasleen eta irakaslearen iritziaz baliatuz bere testua zuzendu, ebaluatu eta berridatziko du.

METODOLOGIA

AHOZKO ADIERAZPENA

Errespetua, elkarrizketaren arauak, besteen iritziaren balorazioa... lantzeko asmotan, egunero ahozko adierazpena bultzatuko dugu: sentimenduak, emozioak, nahiak, gustuak, eguneroko bizipenak... Egunero tutoretza saioetan.

Tradiziozko ahozko olerkiak, asmakizunak, ahokorapiloak... Astean behin, ostiraletan hamar minutu.

TESTU MOTA EZBERDINEN AURKEZPENA

- Egunero zientzietako saioaren zati bat ahozkoa lantzeko erabiliko da.
- Tarte horretan argi izan behar dugu ahozko jardunak duela lehentasuna.
- Saioan landuko diren edukiak astean zehar zientzietan landutakoarekin lotura izango du.
- Taldeko zein bakarkako lana izango da. Norberak dagokion aurkezpena egingo du (mapa kontzeptualak, azalpen testuak, errezeta, menua, ipuina, deskribapenak, erreportaia, albistea...)

TALDEKO LANA

- Beraien artean euskara erabiltzeko ahalegina ikusi nahi dugu.
- Hori bai, badakigu batzuk ez dutela nahi bezalako erraztasunik eta **lagunduko diegu**. Saiatzea nahi dugu eta lagunduko diegu ahalegin horretan. Gainera, ahalegin hori ere asko baloratuko dugu.

Gurekin harremana euskaraz finkatzera begira:

Ikasleekin hizketan ari garenean, eta **ikasleren batek ez badigu euskaraz egiten**: elkarrizketan bertan ahalegina eskatuko diogu (*esan orain euskaraz, ziur badakizula hori euskaraz esaten, lagunduko dizut hori euskaraz esaten*) eta errepikatu arazi egingo diogu. Ahalegina sumatzen badugu **errefortzu positiboak** ere emango dizkiegu (*ikusten, gero eta hobeto egiten duzu, oso pozik nago, azkenaldian beti euskaraz egiten didazu, horrela jarraitzen baduzu...*).

Beraien artean euskararen erabilera indartzera begira:

Beraien arteko elkarrizketan sartuko gara.

Gure laguntzaz elkarrizketa euskarara bideratzen saiatuko gara. Hasiera batean, modu ahalik eta naturalenean (elkarrizketan parte hartuz) eta beharrezkoa bada modu esplizituan eskatuz: elkarri galderak egin arazi, elkarrizketa moztu eta errepikatzeko eskatu...

Ahalegina ere baloratuko dugu eta errefortzu positiboak emango dizkiegu.

Zenbat eta gehiagotan laguntzen diegun orduan eta errazago egingo dute eta orduan eta naturalagoa irudituko zaie.

TXIKILINUX PROGRAMA

1.ZIKLOKO GELETAN egin da. Ondo baloratzen dugu programa, baina irakasleek denbora beharko lukete aplikazioak erabiltzen ikasteko.

3- Irakaskuntza-jardueren programen ebaluazioa

3.1 – Ohiko irakaskuntza-jardueren programen ebaluazioa

3.1.1 – Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak

HAUR HEZKUNTZA

	Alderdi positiboak	Zailtasunak	Zergatik	Hobekuntza proposamenak
Tutoretzen banaketa	Bi urtez jarraian talde berdinarekin jarraitzen da (posiblea bada).	Lerro batekin geratzen garenean, zailtasunak ditugu tutoretzak banatzeko	Lehentasunak ezartzeko zailagoa da	
Tutoretza Plana	Materialak eta baliabideak aukeratzeko askatasuna izan dugu	lazko metodologiari jarraitasun bat emateko zailtasunak aurkitu ditugu	Irakasleagoaren mugikortasunagatik.	Hasieratik eskolako funtzionamendua eta metodologia azaldu irakaslego berriari
Ordutegiak	Saio libre bat gehiago izan dugu Bi saio jarraia izateko aukera izan dugu eta baita koordinazioa egiteko erraztasuna	Gelan landu beharreko ekintzak era egokian prestatu ahal izateko denbora falta izan dugu. Saio libreak dokumentuak betetzen ematen ditugu.	Eskakizun maila burokratikoa gero eta handiagoa delako	Burokrazia gutxiago.
Esklusiben banaketa	Haur hezkuntzak batzorde propioa izan du alderdi pedagogikoak adosteko.	Txostenak digitalizatzeko laguntza behar da.		Datorren ikasturteari begira haur hezkuntzak batzorde propioa izaten jarraitzea, txostenak digitalizatu ahal izateko.
Laguntza eta errefortzuen eraginkortasuna	Orokorrean ondo antolatuta egon dira	Kurtsoan sortzen diren beharrezkoak betetzeko zailtasunak izan ditugu	Kurtsoan aldaketak egoten direlako (diagnostiko gabeko umeak, matrikulazio berriak,...)	Hiruhilean behin laguntzak berrikustea
Organo kolegiatuen funtzionamendua	Funtzionamendua, kudeaketa,.. ona izan da.	Ez	Komunikazio eraginkorra egon da zuzendaritza taldearekin	

Pertsona bakarrek karguen funtzionamendua	Etap desberdinetako erreferenteak izatea onuragarria ikusten dugu.	Ez		
Beste batzuk. Ikuskaritza	Eskola hobetzeko interesa. Ikuskaria hurbila izan da	Ez		

LEHEN HEZKUNTZA

	Alderdi positiboak <i>Aspectos positivos</i>	Zailtasunak <i>Dificultades</i>	Zergiak <i>Causas</i>	Hobekuntza roposamenak <i>Propuestas de mejora</i>
Tutoretza Plana	-ADIMEN EMOZIONALA- LH- Egunero lehenengo ordu erdian. HH- Egunero eta dinamika ezberdinen bidez. <i>*Lehenago azalduta</i> BIZIKASI 3. ZIKLOAN			
Laguntza errefortzuen eraginkortasuna eta	Ikasturte hasieran jarrita zeuden errefortzuak aparte, ikasturte osoan zehar, beharren arabera, saiatu da erantzuna ematen eskatu egin diren laguntzei	Laguntza eskaera egon dira ikasturtean zehar.	Gatazken kudeaketa askotan zaila izan da hainbat irakaslerentzat. Miribillan adotutako metodlogía dela eta, irakale beriek laguntza behar izate.	Irakasle guztien artean (tutore eta espezifikokoak) jarraitua KOORDINAZIO berrmatzea laguntzak era egokian antolatzeko.
Organo kolegiatuen funtzionamendua	KLAUSTROA- Parte aktiboa izan da eskolako funtzionamenduan eta erabakietan. OOG- 3 deialditan egon dira, eta parte aktiboa izan da eskolako funtzionamenduan eta erabakietan.			
Pertsona bakarrek karguen funtzionamen.	ZUZENDARIITZA TALDEA- Taldea osatu dugu, eta taldea garenaldetik, taldeko lanari, koordinazioari eta komunikazioari eta konsensoari ekintzen saiatu gara.	Konpondu beharreko gatazkek murriztu egin dira eta zuzendaritza taldearen betebeharrarako denbora luzeago izan dugu	Gurasoekiko batzarrak era ordenatuagoan bete egin dira	Leentasunak finkatu ditugu: larritasunari begira.

Ikuskaria	Ikuskaria hurbila eta laguntzeko prest			
-----------	--	--	--	--

3.1.2.-Esperientziak, programak eta proiektuak

Aztertutako esparrua	Egoeraren azterketa. eta zergatien laburpena	Hobekuntza eta jarraipenerako prosamenak
